

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Oxel Erostarbe Tubilla Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, "Debagoieneko Tranbiaren inguruan"** ondoko legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

### ZIOA

Gipuzkoan dagoen mugikortasun arazo latzari irtenbidea emateko egitasmoen artean bultzatu beharrezko proiektuetako bat izan da Debagoieneko Tranbia. Adostasun zabala izan zuen eskualdeko udalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman nahi duen + *Euskadi 09* programako herri lanetan, eta 2010 urterako aurrekontuetan, ordea, ez da jaso Debagoieneko Tranbia. Eskualdean dagoen mugikortasun arazoa larria izan arren, eta proiektuak berak hango herritar eta eragileengan sortutako itzaropena handia izan arren ere, Eusko Jaurlaritzak ez du proiektua bere lehentasunen artean jaso.

Beste behin, lehentasunetan azken bagoian dagoen sentsazio orokorra dago eskualde osoan. Gainera, garraio-azpiegitura alorrean eskualde honetan onurarik ekarriko ez duen Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak zonaldea kaltetuko du. Debagoieneko biztanleek, aldiz, egunero ikusten dute beraien herrien arteko garraio-lotura ez dela batere hobetzen.

Debagoieneko herriak lotzeko biderik egokiena, jasagarritasunaren ikuspegitik, bideragarritasunaren ikuspegitik eta ikuspegi ekonomikotik, tranbia ezartzea dela deritzogu.

Horren aurrean, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du:

### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- 1- 2010 urteko ekaina baino lehen Debagoieneko herriak lotuko dituen Tranbia ezartzeko egutegi, plangintza eta txosten tekniko zehatza aurkeztea Eusko Legebiltzarrean.

**Gasteiz, 2009ko abenduaren 23an**

**Oxel Erostarbe Tubilla**

**Aralar Legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea**



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO  
ITZULPEN ZERBITZUA  
SERVICIO DE TRADUCCIONES

## A la Mesa del Parlamento Vasco

**Oxel Erostarbe Tubilla, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno sobre el tranvía del Alto Deba:**

### **JUSTIFICACIÓN**


Entre los planes para dar solución al grave problema de movilidad en Gipuzkoa está el proyecto de tranvía para el Alto Deba. Dicho proyecto contó con un amplio consenso entre los ayuntamientos de la comarca, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco.


Ahora bien, entre las obras públicas incluidas en el programa +Euskadi 09 que el Gobierno Vasco quiere llevar a cabo, y en los presupuestos para el año 2010, no se recoge la del tranvía para el Alto Deba. A pesar de la gravedad del problema de movilidad que sufre la comarca, y de que el propio proyecto ha despertado una gran esperanza entre los ciudadanos y agentes de la comarca, el Gobierno Vasco no ha incluido el proyecto entre sus prioridades.

Una vez más, existe en toda la comarca la sensación generalizada de estar en el último vagón de las prioridades. Además, el proyecto del Tren de Alta Velocidad que no aportará beneficios a esta comarca en el ámbito de las infraestructuras de transporte perjudicará la zona. Sin embargo, los habitantes del Alto Deba ven cada día que la conexión por transporte entre los pueblos no se mejora en absoluto.

Consideramos que implantar el tranvía sería la manera más adecuada de unir los pueblos del Alto Deba, desde el punto de vista de la sostenibilidad, de la viabilidad y de la economía.

Ante estos hechos, presentamos la siguiente proposición no de ley:





## **PROPOSICIÓN NO DE LEY**

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

- 1- A que antes de junio de 2010 presente en el Parlamento Vasco el calendario, la planificación y el informe técnico específico para implantar el tranvía que unirá los pueblos del Alto Deba.

**Vitoria, 23 de diciembre de 2009**

**Oxel Erostarbe Tubilla**

**Parlamentario del grupo Aralar**

